



ZE BARRI?



URLATIK • LANDETARA

11. Alea 1997ko Uztaila



- **Elkarrizketa: Uritz Arenaza**
- **Kaleko Galdera: San Pedroak 97**
- **Erreportaia: Luis Ezeiza Europar Batasuneko Sokrates proiektuan**

AGUR SAN PEDROEI ETA ONGIETORRI OPORREI



- **Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.**
 - **Edozein zoru motari dizdira ateratzea.**
- Tfnoa-Faxa: 714845 • **ESKORRIATZA**

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eskoriatza

Udaletxea 714407
 Udal Bulegoak 714532
 Udaltzaingoa 714407
 Euskaltegia 792168
 Kultur-Etxea 714688
 Gizarte-Laguntzailea 714688
 Kiroletxea 715328
 Liburutegia 714688
 Luis Eceiza 714938
 Jose Arana-Almen Ikastola 714486
 Almen 714964
 Museo-Eskola 714688
 Ze Barri 714077
 Talde Antimilitarista 715028
 Irakasle Eskola 714157
 Osakidetza 714452
 Telesko 714917
 Taxia 714059

Bestelakoak

Eskualde-Ospital (Arrasate) 795300
 Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
 Ertzaintza (Arrasate) 797199
 Suhiltzaileak (Oñati) 792800
 Renfe (Zumarraga) 721515
 Renfe (Gasteiz) (945) 232030
 Pesa (Arrasate) 791419
 Larrialdiak (Arrasate) 771043
 SOS Deiak 088

ZE BARRI?

Argitaratzailea:

AXTROKI KULTUR ELKARTEA

Erredakzio kontseilua: Joseba Rielo, Josu Azkarate, Garikoitz Kortazar, Andoni Bengoa, Lorea Agiriano.

Zuzentzaileak: M.ª Carmen Arrieta, M.ª Jesus Umerez, Karnele Agirregabiria.

Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk.

Tirada: 1.500 ale







"ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin"

URITZ ARENAZA PAGALDAI
Udaleku irekietako zuzendaria

- 1-Ze ekintza egiten dituzue umeeekin?**
Mendi irteerak , san ferminak , play-back-a , antzerkia eta abar . Gero azken eguneko jaialdia .
- 2-Zenbat monitore zarete?**
16 eta zuzendaria.
- 3-Zenbat ordu egunero?**
6 , 7, egunaren arabera.
- 4-Eskoriatzan bakarrik gertatzen da hau?**
Ez , beste herrietan ere bai.
- 5-Zenbat ume dira?**
108 ume.
- 6-Umeak , ze adinetakoak dira?**
4tik 14 urte artekoak.
- 7-Zer egin behar da talde horretan monitore bezala sartzeko?**
Kurrikuluma aurkeztu eta kultur etxera eraman.
- 8-Zertan erabiltzen duzu aisialdia?**
Lagunekin irten , irakurri ,... adibidez , irakurri dudana azken liburua Mario Puziren "El último don" da.
- 9-Zer aldatuko zenuke alkatea bazina?**
Herriko bidea zabaldu egingo nuke.
- 10-Zer iruditzen zaizu ZE BARRI aldizkaria?**
Orri gehiago eduki beharko luke.



1-Zer bait ikusi duzu faltan Eskoriatzako jaietan?
2-Zer iruditzen zaizkizu San Pedro jaiak?

	<p>Ainitze Lucero Isasmendi Ikaslea</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Sokamuturra , baina lanean egon naiz eta horregatik ez dut denborarik izan jaietan zer bait faltan botatzeko. 2. Ez zaizkit gehiegi gustatzen , beste herrietako jai batzuetan hobeto pasatzen dut. 		<p>Jon Plazaola Gutierrez Ikaslea eta oso fina</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasten egon naiz eta kalera irtetzen nintzen orduetan ez zegoen gauza asko antolatuturik , arratsaldeetan ez zegoen ezer. 2. Gustokoak dirut , baina gero eta txarragoak dira.
	<p>Ander Plazaola Gutierrez Ikaslea</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Zezenak eta musika ona tabernetan. 2. Oso onak , baina urtero programazio berdina egoten da. 		<p>Lorea Agiriano Errasti Ikaslea</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Zezenak eta astegunetan jende gutxi ibili da. 2. Ikasten egon naizenez , irten naizen egun apurrak ondo aprobetxatu ditut.
	<p>Dorleta Arana Oianguren Ikaslea</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Zezenak. 2. Oso onak. 		<p>Maider Otamendi Tolosa Ikaslea</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Zezenak eta koadrila arteko jokoak. 2. Betikoak. Programazioa beti berdina izaten da.

Cuenta Joven
 de Caja Laboral
 El servicio
 más completo.

**Euskadiko Kutxaren
 Kontu Gaztea.
 Zerbitzuetan
 osatuena.**


CAJA LABORAL
 EUSKADIKO KUTXA




LENIZ
 ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA
REPARACIONES LENIZ, C.B.

Aingeru Ibiltokia, z/g.
 Tfnoa.: 715061

SAN JUANAK

San Juan egun bezperari txistularien pasakailearekin eman zitzaion hasiera. Axtroki taldeko lagunek herriko enparantzan jateko zerbait eskeintzen zuten bitartean umeentzako su japoniarrak bota zituzten arratsaldean.



Gaba heldu zenean, txalapartaren soinuak bildu gintuen eskoriatzarrok enparantzan eta saskibaloit taldeko neskek sua ixotu zuten aurtengo maila igoera ospatzeko.

Txistu soinuarekin batera sua itxungi ahala dantzari ekin zioten Gorosari Dantza Taldekoek.

Azkenik, urteroko ohitura jarraituz, herriko gazteek zuhaitza jaso zuten. Aipagarria da lehenengo bota zuten makalarekin (txopoarekin) arazoak izan eta gero pinua altxatu zutelana, ez da ahaztu behar ohiturak zuhaitz zuzen eta luzea jartzea agintzen duela eta ez makala derrigorrez.



SAN PEDROAK

San Pedro jaiak joan zaizkigu. Aurten urtero bezela herri kirolak eta dantza ez da falta izan. Dantzariak Euskal Herriko herrialde desberdinetako dantzak eskeini zizkiguten eta erabili zituzten jantziak ere bereziak izan ziren.



Umeen tanborradan aipatzekoa da hasiera baten partaidetza falta zela eta ez egiteko egon baziren ere azkenik inoiz baino jende gehiago bildu zela. Nagusienean berriz, aurten txosnetako antolatzaileek batailoi berria atera zuten. Umeen tanborradan Basajaunaren Altxorra gogorarazten zuen karroza atera zen eta nagusienean

Axtrokiko ontzien aurkikuntza gogorarazten zuena.



Aurtengo bakailo txapelketa Manu Villar alkateak irabazi zuen. Ondoren egin zen herri bazkarian 60 bat lagun bildu ziren eta esan digutenez bakailoa oso ona ei zegoen.

Pena izan da jaietan zehar izan dugun eguraldi txarra, batez ere zapatu eta martitzenean. Hala ere ez du oraindik gure umorea gaundituko duen euririk egin, ez horixe.



A & B
aholkulariak

LAGUN-ARO ASEURUAK

**LEGEZKOA
FISKALA
KONTULARIA
LABORALA**

20540 **ESKORIATZA**
(Gipuzkoa)

ALDETEC



Tel.: 908 - 77 41 33 Tel.-Fax 71 54 36 **20540 ESKORIATZA**

**TASAZIOAK
PERITAZIOAK
PROIEKTU ING.
OBRA ZUZENDARITZAK
ERREFORMAK**

Gastañadui, 7
Tel.-Fax. 71 54 36

Gastañadui, 7 - bajo

LUIS EZEIZA EUROPAR PROIEKTUAN



Eskoriatzako Luis Ezeiza Herri Ikastetxeak Sócrates programa barruan kokaturiko proiektu didaktiko batean hartzen du parte, COMENIUS proiektuan, hain zuzen ere. Europar Batasunak bultzatzen duen proiektu honetan Luis Ezeizaz gain beste hiru ikastetxe dira partaide: Italian Siroloko "Scuola Elementare Giulietti" eta Numanako "Scuola Elementare Augusto Elia" eta Britainia Handian West Yorkshireko "Undercliffe First School". Eskola hauetako ikasleek beraien herrialde eta lurraldeari buruzko fitxa didaktikoen bidez informazioa elkartrukatzen dute, eta aldi berean irakasleek eskola bakoitzean erabiltzen duten metodologia amankomunean jartzen dute.


HASIERAKO URRATSAK

Luis Ezeiza Ikastetxeak Italiatik egindako telefono dei baten bitartez izan zuen proiektu honetan parte hartzeko aukera. Italiarrek gure ikastetxeak zenbait proiektu berritzailetan lanean ziharduela entzunda zutenez, proiektu hau elkarrekin burutzeko interesa agertu zuten.. Eskolako erakunde guztiek proposamen hau aztertu ondoren interesgarria iruditu zitzairen Europara zabaltzea eta bertan parte hartzeko deialdian izen ematea erabaki zuten.

96-97 IKASTURTEA

Oraintsu amaitu den ikasturtean hiruhilabete bakoitzean lan bat egin dute ikasleek Italia eta Britainia Handiko ikastetxeetara bidaltzeko. Era berean, beste ikastetxeetatik jasotzen ziren lanak aztertzen zituzten.

Lehenengo hiruhilabetean eskola eta beronen kokapena landu ziren. Hemen, eskola nola dagoen osatuta eta non kokatzen den aztertu zuten, Eskoriatzatik abiatu eta Europaraino iritsiz, bailara, eskualdea, probintzia, etab arakatu ondoren.



IRENE-NA

Tfnoa.: 715078

AHALEGINTZEN GARA

ESKO Sport



txandalak
zapatilak
mendiko botak
aerobic
futbola
txirrindua

Intxaurtxueta 5
20540 Eskoriatza
Tel. 71 52 96



DORLETA

Aranburuzabala, 22 -bajo
Tfnoa.: 71 51 20



Bigarren hiruhilabetearen hemengo usadioak eta kultura izan ziren ardatz. Bigarren lan-sorta honetan gure betiko kirolak, dantzak, tresnak, abestiak, sukaldaritza, bertsoak, eta abarren berri eman zitzairen proiektukideei. Gai honi buruzko lana egiteko orduan oso garrantzitsua izan zen Museo Eskolak eskeinitako laguntza. Aipagarria da euskal kirolari buruz bidalitako lana Italiako Ancona hirian pasa den Ekainak 20an ospatu ziren kirol topaketetan eredu gisa aurkeztu zutela, beraiantzat guztiz ezezagunak baitziren.

Hirugarren hiruhilabetearen naturari buruzko txostena osatu zuten ikasleek. Bertan, abereak eta landaretza oinarritzat hartuz lekuko flora eta fauna aztertu zituzten, horretarako materiala bilduz eta sailkatuz, bai liburuetakoa informazioa erabiliz, bai landareak behatuz.

Bestalde, esan beharra dago partaideen arteko bilera hiruhilabete honetan izan zela Italiako Ancona probintzian dauden Sirolo eta Numana herrietan. Bertara Luis Ezeizako bi irakasle joan ziren Italiako eta Britainia Handiko partaideekin elkartu eta aurten burututako lanaren ebaluaketa eta datorren ikasturterako plangintza egiteko asmoz. Lan hau burutu ezezik, proiektuan parte hartzen duten eskolak bisitatu ere egin zituzten, herrialde desberdinetan erabiltzen diren metodologiak kontrastatuz eta harrera ofizialetan ere parte hartuz.

Ezin aipatu gabe utzi, alde batetik, Italian oso harrera ona egin zitzaizela bisitariei, eta bestetik, balorazio guztiz positiboa egin ziotela burututako lanari COMENIUS proiektu honetan parte hartzen duten eskoletako ordezkariak.

DATORREN IKASTURTERAKO ASMOAK.

Datorren urtera begira bi lan-sorten bidez ekonomia aztertzea erabaki zen, bata Urtarrilean, lan sektoreetan oinarriturik eta bestea Maiatzean, lana, industria, etab... gaur egun eta historian zehar azaltzeko.

Datorren ikasturtean egingo den bilerari dagokionez, Italia eta Britainia Handiko ordezkariak Eskoriatzara etorriko dira 1.998ko Maiatzean, hemen Luis Ezeiza eskola eta bertan jarraitzen den metodologia gertutik ikusi ahal izateko eta urteko balantzea eta hurrengo urterako plangintza egiteko.

Pedagogia alde batetara utziz, aipagarria da Eskoriatzako herria eta Euskal kultura Europara zabaltzeko aukera izan dutela Luis Ezeiza Herri Ikastetxeko ikasleek, hasieran Italian zein Britainia Handian Espainiako kulturarekin lotzen baitzituzten hemengo usadioak. Bestalde, jaso dituzten lanak elebidunak direnez gure hizkuntzaren, hau da, Euskararen, berri ere izan dute. Guzti hau zuzenean erakutsi eta azaltzeko aukera izan dute hemendik Italiara bidaiatu duten ordezkariak eta hona etortzen direnean zuzenean ikusi ahal izango dute hau dena.

ESKOLA ASTEA

Luis Ezeiza eskolak, urtero bezala, Eskola Astea ospatu zuen ekainaren 16 eta 23 bitartean, aste osoan zehar zenbait ekintza burutu zituztelarik. Egun nagusia ekainaren 21a, larunbata, izan zen, eta goizean ikasleek prestaturiko antzerki, bertso, abesti, etab ikusteko aukera izan genuen. Ondoren bazkari gozo-gozoa jan zuten ikasle, irakasle eta gurasoek. Arratsalde partean haurrek honako ekintzez gozatzeko aukera paregabea izan zuten: gaztelu puzgarriak, pailazoak eta tailerrak. Ilandean Aitzorrotzen antolatutako ekintzetan parte hartu zuten eta astelehenean Bizkaiko kostaldera egin zen txangoarekin eman zioten amaiera Eskola Astearen inguruan ospatutako ekintzei.

BENTA-MOTZ


Gaztañadui kalea
Tfnoa.: 714822

GOIZEKO 6ETAN ZABALIK

EGUNEROKO MENUA 900 PTA.

CENTRO ÓPTICO ESKORIATZA

Eduardo Gorosarri
Plaza, 1 bajo
Tf 71 52 82



TOKI ALAI

Taberna
Tfnoa.: 714729

KARAJILOETAN
ESPEZIALIZATUA

TXALAPARTA

JATETXEA

Tfnoa.: 715046

TXIKIRRI TXIKIRRI MENDI MARTXA

Joan zen hilaren 22an ospatu zen Txikirri-Txikirri mendi martxako antolatzaileek badute pozik egoteko nahiko arrazoi, datuak begiratzea besterik ez bait dago arrakastatsua izan zela ikusteko. 185 pertsona apuntatu ziren eta **164k burutu zuten martxa, hauetatik 60 emakumezkoak**; eta datu benetan ikusgarria: **ehundik gora izan ziren martxan izena eman zuten eskoriatzarrak**. Hogeita bi pertsonak aurrikusitako ordua baino lehen bukatu zuten ibilaldia, emakumezko batek hauen artean, eskoriatzarra bera, M^a Carmen Eskibel. Antolatzaileek Ze Barri?ren lerroak aprobetxatu nahi dituzte, berriz ere, martxa hau egitea posible egin duten pertsona, erakunde, eta etxe komertzial guztiei eskerrak emateko.



UDALEKU IREKIAK AURTEN ERE ARRAKASTASU

Haurrek oporretako aisialdiaz gozatzeko aukera aparta izan dute udaleku irekietan. Aurtengainera ohiko ekintzak ezezik aktibitate berriak ere gauzatu dira, hala nola: artisten eguna, eskalada, antzerkia... eta hauek izan dira haurren gustokoena. Ekintzok aurrera eramateko ordea, eguraldia lagun kaxkarra izan dute, uraren eguna eta beste hainbat iharduera gauzatzeko geratu baitira. Osterantzean, ekintzak txukun ateratzeko neurriak hartu dituzte, San Ferminetan esaterako, zezen biziak ekarri ez arren larrialdietarako zerbitzu prestua antolatuz... Gauzak horrela, urtero erronka berriei

aurre egin behar izaten zaien arren, aurtengo arrakasta datorren urtean ere errepikatzea espero dute horretan saiatu diren begiraleek.

AEROBIC

Eskoriatzako kiroldegian aerobik eta karate erakustaldia egin zen ekainaren 21an. Ikuskizun polita eta urtean zehar egiten duten lanaren erakusle izan zen eskoriatzar hauek eskeini zigitena. **Guztira 60 bat lagunek hartu zuten parte aerobik erakustaldian, horietako 40 eskoriatzarrak**. Argazkian



martxoan ospatu zen aerobitona ikus daiteke. Esan digutenez abendurako beste bat prestatzeko asmoa daukate.



ELIZA

Eliza itxuraberrituta ageri zaigu. Argiztapen berriaz gainera ibai ondoko barandila ere San Pedrotarako bukatu zuten.

AKEITA

TABERNA


5etatik zabalik

Tfnoa.: 715094

KAFE, PINTXO eta BOKADILOAK

Argitaralpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora



fundazioa
fundación



TXARTELAK

ALBERGISTA TXARTELA: udan albergeren batera joatekotan bazabiltza, ez ahaztu txartel hau eskatuko dizutela.

NAZIOARTEKO IKASLE TXARTELA: atzerrira bazoaz, txartel honekin deskontuak lortuko dituzu garraio bide, museo, ikuskizun eta abarretan.

NAZIOARTEKO GAZTE TXARTELA: 26 urtetik beherakoentzat, aurrekoaren antzeko abantailak ditu.

Txartelak eskuratzeko informazioa Arrasateko gazte bulegoan lor daiteke.

LANA

• Aretxabaletako Udalak bi lanpostu kaleratuko ditu iraila aldera: **hirigintza teknikaria** eta **peoi ehorzlea**. Epea finkatu gabe dago.

• Enkarterrietako Udal Mankomunitateak, **informatika teknikari bat**, **gizarte laguntzaile bat** eta **administrari laguntzaile bat** behar ditu. Eskariak aurkezteko epea zehaztu gabe dago.

BEKAK

• **Euskadiri buruz entseiuak egiteko** bi beka atera ditu Talaia Fundazioak, bakoitza 250.000 pta-koa. Epea: irailak 5.

• **Europako enpresetan lan praktikak egiteko** bekak (Leonardo egitaraua). Epea: irailak 30.

• Eusko Jaurlaritzak, **garapen lankidetzaren arloan** profesionalak espezializatzeko bekak atera ditu. Epea: urriak 1.

IKASTAROAK

Iruñako Urtxintxa taldeak, abuztuaren 25ean hasi eta irailaren 30 arte, **aisialdiko begirale titulua** ateratzeko ikastaroa antolatu du.

LEHIAKETAK

• Eusko Jaurlaritzak, **Enpresak Sortzeko Gazteentzako XII. Ideia** Lehiaketa antolatu du.

Epea: irailak 19.

• Zumarraga eta Urretxuko Udalek, urteroko lehiaketak antolatu dituzte, modalitate ezberdinetan: **Narratiba eta poesiako Iparragirre Saria, pintura, komiki, bertso paper eta argazki lehiaketa**. Epea: irailak 26.

• **Emakumeen kontakizun IV lehiaketa**, Bilboko Udalak antolatu. Euskaraz zein gazteleraz, gai libre. Epea: irailak 29.

• "Imajina ezazu Euskadi" X. Ekitaldia, **ipuinak, margolaritza, argazkigintza, eta poesia** modalitateetan. Epea: irailak 30.

• "Mugarik Gabeko Gazteak" VIII. **Argazki Lehiaketa**, Arrasateko Udala eta ASA elkarteak antolatu. Txuribeltzean zein koloretan. Epea: urriak 10.

• Nafarroako Gobernuak, **Igo Eskultura Saria** argitaratu du material eta gai librean. Epea: urriaren 6tik 17ra.

• AED Elkarteak, XI. Jokin Zaitegi **itzulpen laburren sariketa** antolatu du. Epea: urriak 31.

• AED Elkarteak **Arrasate 97 lehiaketak** ere antolatu ditu, ipuina, poesia, bertso papera, komikia, eskualdeko euskararen testigantza, antzerkigintza eta ikus-entzunezko gidoigintza alorretan. Epea: urriak 31.

AGENDA

Uztailak 31: San Ignazio eguna.

Abuztuak 15: Andra Mari eguna, besteak beste Aretxabaletako jaiak.

Abuztuak 24: San Bartolomeak Mazmelan.

Irailak 8: Gatzagako Jaiak.

Irailak 29: San Migelak Apotzaga eta Bolibar auzoetan.

EZKONTZAK

• Juan Manuel Pagaldai Eraña (Eskoriatza) eta Irantzu Gabilondo Urtaza (Eskoriatza) ekainaren 28an parrokiak.

• Jose Angel Arkauz Iregi (Aretxabaleta) eta M^a Antonia Uribealago Iñurrategi (Aretxabaleta) ekainaren 28an Bolibarren.

• Juan M^a Ganboa Idigoras (Eskoriatza) eta Iragartze Diaz de Gereñu Uribetxeberria (Eskoriatza) uztailaren 5ean zibilez.

• Aitor Elorza Torres (Eskoriatza) eta M^a Gloria Dominguez Vedrel (Eskoriatza) uztailaren 5ean zibilez.

• Andoni Azkargorta Martin (Eskoriatza) eta Ana Ancín Etxarte (Arrasate) uztailaren 5ean San Viatorren.

• Pascual García Ramirez (Eskoriatza) Agurtzane Okina Axpe (Arrasate) uztailaren 12an Apotzagan.

• Kepa Joseba Olabe Aranburuzabala (Aretxabaleta) eta Irantzu Zupiria Oyanguren (Eskoriatza) uztailaren 12an Bolibarren.

JAIOTZAK

• Christian Vita Martin 1997ko uztailaren 7an.

**AZKOAGA
ESTANKOA**

Zure Zerbitzura

AZOKA:

• Renault 5 (SS-P)-a salgai. Deitu telefono hauetara: 779330-798135

• Bizikleta bat (Paseokoa) emateko daukat. Egoera onean. Tf. 793061

Ze Barri?n informaziorik argitaratu nahi baduzu, utzi Kultur Etxeko buzoian, Ze Barri?rako dela zehaztuz.



35 bat urte izango dira San Pedro jaietan argazki hau atera zela. Argazkian, Edorta Alegria zena, ezkerrean eta Jacinto Azkarate eskuman ageri dira neska erdian dela. Neska eta beste dantzaria ez ditugu ezagutu.



Ze BARRIKO partaideok oporretan joanak gara, argazkian ikusten den moduan jolas gogorik ez dugu falta. Zuek ere oporrak ondo igaro ditzazuela eta irailean ikusiko dugu berriro ere elkar.

Ez ahaztu argazkiak ateratzen, oporretatik bueltan Kultur Etxeko buzoian uzten badituzue argitartuko ditugu...

**Bidali zuen postalak Kultur Etxera,
Hidalga, 1 - 2540 ESKORIATZA**

ONDO PASAU ETA ETORRI BE EGIN

ANGEL Aseguroak

Autoak, Etxeak, Bizitza, Istripuak,...

Arana, 19 Behea • Tf. 943-715203 • ESKORIATZA

RELE

Legazpia

Telebista • Bideoa • Elektrogailuak
Instalazio orokorrak • Opariak

Tfnoa.: 714072



Zerbitzu Teknikoa